

"ALDARE-LIBURUA"

«Aldare-liburua» zer izan daitekean ez dakitenez, auxe dala esan bear: Meza ematekoan apai-zak aldarean bear duan liburua, eguneroko otoitzak, igande ta jaietakoak, santuen egunetakoak, eskariak edo erri-otoitzak, Sagarak eta Sagara-aurreak e. a. dituana.

Aspaldi ontan zenbait liburu ta liburuxka erabili bear izan ditugu aldarean, zatika ta aldi ez-berdiñetan argitaratuak ain zuzen. Aldaretik esateko diran guztiak liburu bat berean bildurik egotea da egokiena. Aspaldiko ametsa ez-ezik, amar-bat urte badira orri-pilla aundia euskeraturik eta garbiro idatzairik gelditu zala.

Bereala argitaratuko duten otsak zabaldu dira. Liburu aundia izango da gutxi gora-beera, IRA-KURGAIK liburua bezain aundia; ez da, beraz, bizpairu urte barru ostera berriturik naiz obeturik atera dezaketen oietakoa: luzarorako egiñik geldituko da, baizik.

Bidezkoa da, noski, gauzak orrela diranez, aal bezain txukun eta euskera egokiaz ateratzen zin-zinñez saiatzea. Akatsak kentzeko ta zuzenketak egiteko ere, orain litzake garaia: argitaratu aurretik. Eta orain egun eta aste batzuk atzeratzea obe dala derizkiot, luzarorako akatsez kaxkarturik ateratzea baiño.

Nai bezain goiz egin ez ba'ditut ere, egiñik eta bidalirik ditut lau orrialde, nezetzat uts edo akats diranak zuzentzea eskatuz. Asi Gotzai jauna-gandik eta arduradunengana, bidalirik dizkiet nere oarrak eta egiñik dizkiet eskaerak. Aldi berean gure erriak ere jakin bear dituala, iruditzen zait. Ez dago ezer izkutuka ibiltzekorik. Arazoak guztien aurrean garbitzea da, beraz egokiena.

—o—

«ORDUEN LITURGIA» or daukagu 1977'gn urtea ezkerokoan eta liburu ortako otoitz eta zati asko dira orain ALDARE-LIBURUA edo dalakoan

sartuko dituztenak. Lenengoan oker daudenak, bigarrenean orain era berean agertzea, tamalgarria litzake: orain da zuzentzeko garaia. Eta ortara datoz nere oarrak, «Orduen Liturgia» liburuan neretzat egoki ez daudenak beintzat, orain berri-an zuzendurik eman dezaizkiguten. Eta auek dira akatsik nagusienak:

1.—EDO itza okerreko eran erabillita dago zenbait unetan, adibidez 639'gn orrialdean: «...gorrotoak, guduak EDO indarkeriak il ditunak...»

Or berdintasunik ez dagoanez, oker dago EDO ori ta orren ordez, NAIZ da ipiñi bearrekoa, onela: «gorrotoak, guduak NAIZ indarkeriak il...»

Orra, bada, zeazki zaindu bearreko uts bat, zuzentzen erraza.

2.—BAIZIK itza, askotan eta askotan oker ipiñita dago: bete-betean gaztelerazko joskera berean. Beste askoren artetik, ona emen adibide bat: «...ez gitezela nagi izan sinisteko, BAIZIK sinis dezagula... 377'gn.

Gazteleratik zerbait euskaratzekoan, gero-ta joera aundiagoa ageri da BAIZIK ori, gaztelerazko SINO bezala, era berdiñean erabiltzeko. Baiña euskeraz ari geranean, galde-gaiaren atzean joan bear du BAIZIK itz orrek, onela:

...ez gitezela nagi izan sinisteko, sinis dezagula baizik...

Beste adibide bat, 734'gn orrialdean dago: «...ez utzi gu gaiztakerian erortzen, baizik egizu...»

Onela bear du: ez utzi gu gaiztakerian erortzen, egizu BAIZIK...

Ala ta guztiz ere, zenbait esaldi luzetan, erraztasunerako ta argitasunerako, bada erdi-bide bat, eta auxe da: BAIZIK Ori aurrean ipintzea, baiña era ontan: BAIZIK-ETA egiñik.

Edibidez: «Ez gitezela nagi izan sinisteko, BAIZIK-ETA sinis dezagula erioaren garaille zerala».

(JARRITZEKO)
GAZTAÑAGA'tar JESUS